



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 10a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Nafarroako Sinboloetako buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (2. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etengabeko zaintza eta ikuskapen neurriak ezar ditzan, enpresetan laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak betetzeari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira osasun-arreta unibertzala berma dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua alda dezan, halako moduan non emakume funtzionarioek berreskuratu egingen baitute beste gurasoari amatasun baimenaren parte bat lagatzeko aukera. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazio- eta jarraipen-neurriak har ditzan Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzeari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuen arloko foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen efizientzia berrikus dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriazko araudi bat gara dezan, energia berriztagarrietarako parke esperimental berriak paratzea ahalbidetuko duena. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Lege proposamena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urriaren 3an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu zuen, eta 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urriaren 3an, erabaki du aintzat ez hartzea Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proposamena, zeina Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etengabeko zaintza eta ikuskapen neurriak ezar ditzan, enpresetan laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak betetzeari dagokionez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etengabeko zaintza eta ikuskapen neurriak ezar ditzan, enpresetan laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak betetzeari dagokionez".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etengabeko zaintza eta ikuskapen neurriak ezar ditzan, enpresetan laneko arriskuen prebentzioaren arloko neurriak betetzeari dagokionez; bereziki, eraikuntzaren sektorean, hor gertatzen baitira gehienbat istripuak.

– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du urgentziaz berrikus dezan laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia, egungo errealitatera egokitu dadin; bereziki, eraikuntzaren sektorean.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide bidera ditzan eraikuntzako obretan segurtasuna nahiz lan osasuna kontrolatzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-istripuen aurkako borroka areagotu dezan eta langileen osasun integrala babes dezan.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua bultzatzen dezan.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sindikatuen parte-hartzea susta dezan prebentzio ereduen diseinu eta kudeaketari dagokionez.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-arriskuen prebentzioaren inguruko trebakuntza bultzatzen dezan enpresaren eta foru administrazioaren maila guztietan".

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira osasun-arreta unibertsala berma dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira osasun-arreta unibertsala berma dezaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du osasungintza publiko, doako eta unibertsalerako eskubidearekiko konpromisoa pertsona guztientzat, zein ere den horien administrazio-egoera, eta eskubide hori gauzatzeko beharrezkoak diren

neurriak bultzatzen jarraitzeko bere borondatea erakusten du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharreko jarraibideak eman ditzan osasun-arreta unibertsalean burokrazia bizkortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du eragingarri egin dezan osasun-arretarako sarbidearen ustezko unibertsaltasuna, eta Osasun Sistema Nazionalerako Iripide Unibertsalari buruzko uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuak dauzkan hutsuneak zuzendu ditzan”.

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua alda dezan, halako moduan non emakume funtzionarioek berreskuratu eginen baitute beste gurasoari amatasun baimenaren parte bat lagatzeko aukera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua alda dezan, halako moduan non emakume funtzionarioek berreskuratu eginen baitute beste gurasoari amatasun baimenaren parte bat lagatzeko aukera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua alda dezan, halako moduan non –seme-alaben zaintzaren gaineko erantzunkidetasunaren mesedetan– emakume funtzionarioek berreskuratu eginen baitute beste gurasoari amatasun baimenaren parte bat lagatzeko aukera (gehienez ere lau aste 2019an eta bi 2020an).

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere osotasunean aplikatu dezan Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea, halako moduan non osorik garatuko baitira lege horretan jasotzen diren zaintzen eta erantzunkidetasuna sustatzearen arloko politikak.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, aurrekontuak prestatu baino lehen eta 17/2019 Foru Legea aurrekontu-esleipen nahikoarekin garatzen hasteko, Funtzio Publikoko Mahai Orokorra eta Berdintasunerako Kontseilua dei ditzan. Bileren helburua izanen da sindikatuen ordezkariekin eta ordezkari feministekin lan egitea identifikatzeko presak eta behar gehien daukaten neurriak, zeinak kokatu beharko baitira lanbidea eta lana bateragarri egitearen, erantzunkidetasunaren eta zaintzen banaketaren esparruan”.

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazio-eta jarraipen-neurriak har ditzan Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzeari dagokionez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da informazio- eta jarraipen-neurriak har ditzan Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzeari dagokionez".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Informazio kanpaina bat egin dezan Nafarroan 5G teknologia eta banda zabala ezartzeari dagokionez, orokorrean Nafarroako gizarte osoari zuzenduta, bereziki enpresaren sektoreari.

2. Ukitutakoek izan litzaketen auziak artatzeko kanalak gaitu daitezzen.

3. Egokitzapen horren jarraipena egin dadin".

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuen arloko foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen efizientzia berrikus dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuen arloko foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen efizientzia berrikus dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urteko txosten bat egin eta aurkez dezan, tributuen arloko foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen eraginkortasuna eta efizientzia aztertze".

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko araudi bat gara dezan, energia berriztagarrietarako parke esperimental berriak paratzea ahalbidetuko duena.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urriaren 3an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko araudi bat gara dezan, energia berriztagarrietarako parke esperimental berriak paratzea ahalbidetuko duena. Mozioa María Elena Llorente Trujillo

andreak aurkeztu zuen eta 2019ko urriaren 1eko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

